



JUNKAL'EKO AMA
ZERUKO ARGIA
KRISTAU GUZIAK AMA
ZAITUGU MARIA.

Ama Junkal'e koa
Zure goramenak
Kantatzen asten gera
Zure seme onak,
Zuretzako ditugu
Itzik maitienak,
Zuretzako Amatxo
Otoitzik onenak.

Goiz sentia asitzean
Argia zan lertu,
Odei beltzak igeska
Eguna atertu,
Beraun-pean ziñaden
Urantzun agertu
Irungo erriari
Laguntzeko gertu.

Zure agerkundea
Andre Done Mari
Zorion eman zion
Irun maiteari,
Zorion eta poza
Ta zenbat mirari
Eskerrak orregatik,
Damaizugu zuri.

IRUN'GO ZAINDARIA

Eguzkia zeranez
Uxatuz lausoak
Argiz bete ziñuzun
Irun'go auzoak.
Argi orren atzetik
Eskariz beteak
Igoketza besperan
Zetozten ozteak.

Itxas erria giñan
Zu agertzekuan
Irun'ek Fede ona
Bazeukan ordutu,
Eliza jaso zuten
Auzu-lan zintzoan
Berdin bear ezkero
Gaur dan egunean.

Otoitz bidean argi
Zeranez Maria
Beti izandu zera zu
Izar gidaria,
Erromesak «Santiago»
Amets leñargia
Bidean zure etxea
Kai eta kabia.

«Aldabe» inguruetan
Guda ots zitala
Etsaiak artu nai du
Gure-err apala,
Zure laguntza gatik
Ama txit yaukala
Ziñez aitorzten degu
Garaitu giñala.

Aldare orretan zaude
AMA beltxerena,
Pozik kantatzen dugu
Zure goramenak,
Virjiñ euskaldunetan
Zu zera zarrena,
Zarrena ezik ere
Baitare ederrena.

Zure mantu ederrak
Babes atsegina
Damaigu zorionez
Zeruko Virjiñia,
Gure-Eliz ederraren
Lore-eder liraña,
Irun'go seme danon
AMA ERREGIÑA.

Negar erri onetan
Negarrez gera gu
Berakizun danetan
Eskale gaituzu,
Ur-bizien iturri
Semea dakazu
Irun-Uranzu arren
Graziz ase-zazu.

Entzun AMA maitea
Eskari gureak,
Otoizlari gatoz gaur
Itxaroz beteak
Gorde gure-erraren
Sinismen-fedeak
Zeruru igo gaitezen
Irun'ko semeak.

Agur AMA laztana
Zureak gera gu,
Zure zerbai bezela
Arren guri artu,
Anbestekin AMATXO
Adiyo dizugu
AGUR AMA LAZTANA
AGUR, AGUR, AGUR.

JUNKAL'EKO AMA
ZERUKO ARGIA
KRISTAU GUZIAK AMA
ZAITU GU MARIA.

¶. Nativitas est hodie Sanctae Mariae Virginis.

B. Cujus vita inclita cunctas illustrat Ecclesias.

OREMUS:

*Famulis tuis, quæsumus Domine Celestis gratia munus impertire, ut quibus Beata Virginis partus extitit
salutis exordium, Nativitatis ejus votiva solemnitas pacis tribuat incrementum. Per Dominum nostrum, etc.*

Lento e maestoso
Erik

mf Jun.kal'-e-ko A-ma, ze-ru-ko ar-gi-a, Kris-tau guz-ti-ak A-ma, zai-tu-gu Ma-ri-a.
Moder *Schiola* *legato* , *cresc.*

p A-ma Junkal'-e-ko - a, zu-re go-ra-me-nak kan-ta-tzen-ten ge-ra zu-re se-me o-
espress. , *rit.*

nak; zu-re - tza-ko di-tu-gu i-tzik maiti-e-nak zu-re - tza-ko, A-matxo, o-toi-tzik o-ne-nak.

Donostiko Obispo Jaunak, goramen auek biotsez otoi edo
abesten dituzten guzieri, 100 egunko barkameua ematen die.

1958

Bear diran baimenekin

Artola Fernando'ren itzak.
Aita Lazcano'ren eresia.

Lento e maestoso

Etiak *mf* Jun-kal-e-ko A-ma, ze-ru-ko ar-gi-a, Kris-tau guz-ti-ak A-ma, zai-tu-gu, Ma-ri-a.

Organo *mf* rit.

Moderato legato

Schola *p* A-ma Junkal-e-ko - a, zu-re go-ra-me-nak kan-ta-tzen as-ten

cresc.

espress.

ge-ra zu-re se-me o-nak; zu-re - tza - ko di - tu - gu i -

espress.

rit.

tzik mai-ti-e-nak zu-re - tza - ko, A-ma-txo, o-toi-tzik o-ne-nak.

rit.